

'Lasa-Zabala auzia' Veraren deklarazioa


Iruin: «Ez da atsegina bonba-gutuna igorri zidan pertsona galdekatzea»

Verak aurretik «terrorismoa jendaurrean gaitzesteko» eskatu zion Iñigo Iruini

Aitziber Iartza / Madril
Berriemaile berezia

Rafael Verak akusazio partikularrari ez erantzutea justifikatu nahi izan zuen, eta, hala, Iruini irtenbide elkarrizketaturako oztopo izatea egotzi zion eta, ETaren ekintzetan ardura izatea leporatuz, ekintzok gaitzesteko eskatu zion. Iruinek argi utzi zuen beretzat ere ez dela gustukoa sumario baten arabera berari bonba-gutuna igorri zion pertsona galdekatzea, baina bere lana dela.

BESTE akusatuek egin legez, Rafael Verak ere uko egin zion akusazio partikularraren galderei erantzuteari. Verak, gainera, zergatia justifikatzeko aukera eskatu zion epaileari, eta baita hark eman ere. Lasa eta Zabala sendien sofrimendua ulertzen duela esan zuen lehenik, eta ondoren *Marey kasuan* «Iruinen koalizioa eta ideologia politiko bereko abokatuari» erantzun ziola esan zuen. Baina Iruini ez erantzutea honela azaldu zuen: «Iruin mundu horretan abokatu bat baino zerbait gehiago dela esan behar da. Iruinekin bitan izan naiz, zuzenean eta zeharka —lehen Aljerren eta bigarrena Garzon epaileak bideratutako bilera batean—, terrorismoari aterabidea ematen saiatzeko, elkarrizketaren bidez. Bi kasuetan argi dut Iruin oztopo izan zela elkarrizketa lortzeko. Iruinek



OSCAR MORENO / EFE

Iñigo Iruin abokatua, Entzutegi Nazionalera iristean.

gogortasun jarrera zuen. Gustatuko litzaidake ekintza terroristak gaitzestea, hark parte hartu baitu, esaterako, *Hipercor kasuan* defentsan. Gaitzespen publikoa eginez, akusazio partikularraren ordezkari gisa legitimatuko bailitzake. Paradoxikoa da ni delitu baten babesle gisa egotea hemen, eta bera akusazio partikularreko abokatu».

Epaileak argi azaldu zion, Iruinek Lasa eta Zabala hilketarekin zerikusia ez duenez, ez dela paradoxikoa. Siro Garcia epaileburuak onartu zuen Veraren hitzak eteteko nahikoa azkar ez zela ibili, eta horregatik Iruini erantzuteko

RAFAEL VERA

■ ■ ■ «Paradoxikoa da ni delitu baten babesle gisa egotea hemen, eta Iñigo Iruin akusazio partikularreko abokatu gisa egotea»

aukera eman zion. Iruinek azaldu zuen ez zuela uste Verak ere beste akusatuen probakzio estrategiarekin bat

gingo zuenik, baina ez zuen erantzunik gabe utzi nahi izan Estatuko Segurtasun idazkari ohiak esana. Lehenik, argi azaldu zuen Aljerren zuzenean Verarekin ez zela izan eta *Hipercor auzian* ez zuela ez zuzenean ez zeharka parte hartu. Ondoren, zera gaineratu zuen: «Abokatu honentzat ere ez da atsegina 5. Instrukzio epaitegiko 10/97 sumarioaren arabera 1989an bonba-gutuna —zorionez indargabetua izan zena— igorri zidan pertsona galdekatzea». Epaileak hitza kendu baino lehen, bere lanaren gauzak direla esateko beta izan zuen abokatu hernaniarrak.

Olano: «Indar okupatzaileak kanporatu beharra berresten du honek»

AI. / Madril

JUAN MARI OLANO Amnistiaren Aldeko Batzorde-etako kidea eta Hartzea Lopez Arana Oroit eta Sala taldeko kidea Madrilen izan ziren atzo, Lasa eta Zabala sendiko ordezkariekin batera. Olanok, Veraren deklarazioari buruz, azpimarratu zuen «inpunitate sisteman aritzera ohitua dagoen pertsona harro bat» ikusi dutela. Epaiketarik ezer espero ez duela esan ostean, ikusitakoak AABen planteamenduak «indar berritzen» dituela azaldu zuen. «Euskal Herrian bitzita politiko eta sozial normalizatu bat egin ahal izateko, hauen menpean aritu diren guardia zibil eta polizia alde egin behar dute, Iparraldean CRS eta jendarmeekin gertatzen den bezala. Hau da Entzutegi Nazionalaren aurretik euskal gizarteari zabaldu nahi diodan mezua: premiazkoa da indar armatu okupatzaile guztiak kanporatzea».

Hartzea Lopez Aranak, berriz, Frantziako Gobernuaren jokaera azpimarratu nahi izan zuen. «GALen ekintza gehienak Ipar Euskal Herrian egin ziren. Ekintza horiek ezin ziren burutu ahal Frantsez Gobernuaren zerbitzu anitzek ez balute konplizitate erakutsi. Badira hainbat deklarazio Frantziako Polizia GALen inplikaturik, baina Frantzian ez da inolako ikerketarik egin».

Jarrera harroa • *Marey auziko* trantzetik igaro ostean, ezer gerta ez dakiokenaren harrotasunez aritu zen atzo Rafael Vera. Fiskalak galdetu zionean Argotek noizbait Bayo hiltzea proposatu ote zion, hauxe erantzun zion: «Beti arduratu naiz guardia zibil kopurua handitzeaz, eta inoiz ez gutxitzeaz». Bayo eta Doradoren familiei dirua eman ez ziela esateko, berriz, hauxe adierazi zuen: «Frantziara ekarri eta eramanen nituen diruz betetako kamioietako dirua nahiko eskuzabal banatzen

Xurituaren harrokeria

Aitziber Iartza

genuen, baina Dorado eta Bayoren sendiak ez ziren sartzen banaketan». Herri akusazioko abokatuaren kasuan, berriz, akusatua galdetzaile bihurtu zen behin baino gehiagotan, eta, esaterako, abokatuak Verari Barne Ministerioko Gabineteko Asuntos Legalesen (lege gaitetarako gabinetea) hala-

ko izena zergatik ote zuen galdetu zionean, ea GAL siglekin bat etortzea barregarria iruditzen zaion erantzun zion abokatuari. Horri guztiari Iruinekin izaniko jarre- rako gehitu behar zaio.

Beste botereak nahastu • Rafael Verak guztia ukatu zuen atzo, eta gerra zikina-

rekin zerikusirik ez duela azaldu zuen. Hala ere, *Marey kasuan* egin bezala, garai hartako Euskal Herria aplokaloptikoki deskribatu eta gogora ekarri zuen orduan inork ez zituela kritikatzeko gerra zikineko ekintzak. Hala, justiziari eta kazetariei ezer egin ez zutela oroitarazi zien, erruak banatuz kon-

tzientziak jotzeko asmoz. Sozialisten lana goraiptatu zuen, baina hainbatek boterera igo bezain laster bertan eroso egotea beste helbururik ez zutela ere esan zuen.

Akusatuak goraiptatu • Galindok erakutsitako ildoari jarraituz, Verak beste akusatuak babestea eta goraiptatzea izan zuen xede nagusi. Hala, Dorado eta Bayo eza gutzen ez zituela behin eta berririo esan arren, «gizonik onenak eta ausartenak» zirela esan zuen askotan. Siltsunak babesa behar baitu.